

## **LAN, PENTSION ETAK BIZITZA DUINA URTARRILAK 30, GREBA OROKORRA**

**EBAZPENAREN IZENBURUA:** lan, pensio eta bizitza duinaren aldeko greba babesteko ebazpen proposamena.

### **ZIOA:**

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte hartzaile baten bidez. Geroztik, eskubide horien aldeko ekintzak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pensio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pensioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia gertatu da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pensio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pensioena denon afera dela, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa dela; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar direla. Finean, bestelako eredu sozial eta produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emateko.

Ezariak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka zein jendartearen beharren arabeko antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat eginda, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

### **EBAZPEN PROPOSAMENA**

Horiek horrela, Tolosako Udalak:



1. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko grebari atxikimendua adierazi nahi dio.
2. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie erakundeko langileei.
3. Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik:
  1. Madrilen osatu den Gobernuari eskatzen dio:
    - 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsioen murrizketak indargabetzea.
    - Zapateroren eta Raxoiren lan erreformak bertan behera uztea.
    - Presazko izaeraz, Gizarte Segurantzaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferitzea.
  2. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die:
    - 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
    - Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiarazi ditzatela.
    - Estatu mailako hitzarmenen gaintik, hitzarmen kolektiboen ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa lehenesteko sustapen lana egin dezatela.
    - Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
    - Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europako Batasunekoekin parekatu arte, eta lan istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.
    - Lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiaraztea.
  3. Erkidego eta lurraldeetako gobernuei eskatzen die:
    - Gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala eta pentsio arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.
    - Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioetako iruzurra zigortzea.
    - Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiaraztea.
    - Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
    - Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
    - Kontratazioan, sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia jardueraren araberrako diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
    - Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.



4. Tolosako Udalean adostutako ebazpen hau Eusko Jurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.

